eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea



# Geografia

## USE 2022

www.ehu.eus

# GEOGRAFIA

# *GEOGRAFÍA*

***Ez ahaztu azterketa-orrialde guztietan kodea jartzea.***

- Proba idatzi honetan **3 ariketa egin** behar dituzu.
- Ariketak hiru multzotan banatuta daude:

  **A multzoa (4 puntu): <u>A1 eta A2 aukeren artean, aukeratu bat</u>.** Mapak, grafikoak edo irudiak ondo egitea eta aurkeztutako materiala ulertzea eta era egokian interpretatzea hartuko da kontuan.

  **B multzoa (4 puntu): <u>B1 eta B2 aukeren artean, aukeratu bat</u>.** Ezagutza-maila eta erlazioak egiteko gaitasuna hartuko da kontuan.

  **C multzoa (2 puntu): <u>Proposatutako 8 kontzeptuetatik 4 definitu</u>** (bakoitzak 0,5 puntu balio du). Kontzeptu geografiko bakoitza definitzeko, gehienez 5 lerro erabil daitezke.

**Jarraibideetan adierazitakoei baino galdera gehiagori erantzunez gero, erantzunak ordenari jarraituta zuzenduko dira, harik eta beharrezko kopurura iritsi arte.**

***No olvides incluir el código en cada una de las hojas de examen.***

- En esta prueba escrita **realizarás 3 ejercicios**.
- Los ejercicios están distribuidos en tres bloques:

  **Bloque A (4 puntos): <u>Elige una opción entre A1 y A2</u>**. Se valorará la correcta elaboración de los mapas, gráficos o imágenes, y la comprensión y correcta interpretación del material presentado.

  **Bloque B (4 puntos): <u>Elige una opción entre B1 y B2</u>**. Se valorará el nivel de conocimientos y la capacidad para establecer relaciones.

  **Bloque C (2 puntos): <u>Define 4 de los 8 conceptos propuestos</u>** (valorado hasta 0,5 puntos cada uno de ellos). Cada concepto geográfico debe ser definido en una extensión que no sobrepase las 5 líneas.

  **En caso de responder a más preguntas de las estipuladas, las respuestas se corregirán en orden hasta llegar al número necesario.**

2022

Universidad del País Vasco — Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO PROBAK

2022ko EZOHIKOA

PRUEBAS DE ACCESO A LA UNIVERSIDAD

EXTRAORDINARIA 2022

# GEOGRAFIA

# GEOGRAFÍA

## A MULTZOA: Ariketa praktikoa (4 puntu)

A1 eta A2 aukeren artean, **aukeratu bat**

**A1.-** Espainiako biztanleria-dentsitatearen maparen iruzkina. (4 puntu)




**A2.-** Paisaia-irudi baten iruzkina. (4 puntu).



2022

## B MULTZOA: Gai teorikoa garatzea (4 puntu)

B1 eta B2 aukeren artean, **aukeratu bat.**

**B1.-** Euskal Autonomia Erkidegoko industria-sektore nagusiak. (4 puntu)

**B2.-** Nekazaritzarako, abeltzaintzarako eta basogintzarako espazioak Espainia mediterraneoan. (4 puntu)

## C MULTZOA: Definizioak (2 puntu)

Proposatutako 8 kontzeptuetatik **4 definitu** (bakoitzak gehienez 0,5 puntu balio du).
Definizioa (kontzeptu geografiko bakoitzaren definizioa egiteko, 5 lerro erabili daitezke gehienez):

- Europar Batasuna (0,5 puntu)
- Megalopolia (0,5 puntu)
- Hiri-Antolamenduko Plan Orokorra (0,5 puntu)
- Ekintza-zentroa (antizikloia eta depresioa) (0,5 puntu)
- Tertziarizazioa (0,5 puntu)
- Arro hidrografikoa (0,5 puntu)
- Akuikultura (0,5 puntu)
- Baliabide naturala (0,5 puntu)

2022

## BLOQUE A: Ejercicio práctico (4 puntos)

**<u>Elige una opción entre A1 y A2.</u>**

**A1.-** Comentario del mapa de densidad de población de España. (4 puntos)




**A2.-** Comentario de una imagen de paisaje. (4 puntos)



2022

## BLOQUE B: Temas de contenido teórico (4 puntos)

**Elige una opción entre B1 y B2.**

**B1.-** Principales sectores industriales en la C. A. del País Vasco. (4 puntos)

**B2.-** Los espacios agrícola-ganaderos y forestales de la España mediterránea. (4 puntos)

## BLOQUE C: Definiciones (2 puntos)

**Define 4 de los 8 conceptos propuestos** (valorado hasta 0,5 puntos cada uno de ellos). Cada concepto geográfico debe ser definido en una extensión que no sobrepase las 5 líneas.

- Unión Europea (0,5 puntos)
- Megalópolis (0,5 puntos)
- Plan General de Ordenación Urbana (0,5 puntos)
- Centro de acción (anticiclón y borrasca) (0,5 puntos)
- Terciarización (0,5 puntos)
- Cuenca hidrográfica (0,5 puntos)
- Acuicultura (0,5 puntos)
- Recurso natural (0,5 puntos)

2022

## 2022ko GEOGRAFIA EZOHIKOA / EXTRAORDINARIA GEOGRAFÍA 2022

Azterketaren balorazioa egiteko, kontuan hartuko da ea galdera praktikoan, galdera teorikoan eta kontzeptuen definizioan zuzen erantzuten zaion galdetzen denari.

**Irizpide orokorrak**
Bereziki kontuan hartuko da:
- kontzeptuen argitasuna
- idazkeraren zuzentasuna eta heldutasuna
- erlazionatzeko gaitasuna
- elementu eta faktoreak hierarkizatzeko gaitasuna
- erantzunen egituratze ordenatua
- iruzkinen eta mapa/lauki/taula edo grafikoen arteko erlazioa erreala izatea eta lokalizazio kartografikoak zehatzak izatea.
- ezagutza-maila

**Irizpide espezifikoak**

### A MULTZOA: Ariketa praktikoa (4 puntu)

**A1.-** Espainiako biztanleria-dentsitatearen maparen iruzkina. (4 puntu)

-Hazten ari diren eta biztanleria gutxitzen ari zaien eskualdeei buruz hitz egiten du.
-Autonomia-erkidegoen arteko harremanek barne-migrazioekin dute erlazioa azaltzen du.

*Ikaskuntza ebaluagarriaren estandarrak, PCM/58/2022*

6.– Ea biztanleria funtsezko faktore gisa ulertzen duen (izan ere, biztanleriaren banaketak, dinamikak eta egiturak eragin garrantzitsua dute espazioa osatzeko prozesuetan). Eta, era berean, ea desberdintasun ekonomikoen, biztanleriaren banaketa desberdinaren, migrazio-mugimenduen edo biztanleriaren zahartzearen arrazoiak eta ondorioak azaltzen dituen.

*Ebaluazio-irizpideak, 127/2016 Dekretua*

Alderdi hauek tratatzea baloratuko da:

Biztanleriaren banaketa espaziala aztertzeko, biztanle-dentsitatea erabiltzen da; kontzeptu horrek inguru bateko biztanleria eta inguru horretako azalera, km$^2$-tan, lotzen ditu. Balio txikia du, Europako batez bestekoa baino txikiagoa, baina desoreka espazial handiak ezkutatzen ditu: dentsitate handiko inguruak (Madril, penintsularen periferia, Kanariak) eta dentsitate txikiko inguruak (penintsularen barnealdea eta mendi-inguruak (10 bizt/km$^2$ baino gutxiago).

Gaur egungo garapenak (zerbitzuen lehentasuna, industriaren banaketa espaziala, nekazaritza teknifikatua, garapen endogenoa eta atzerriko immigrazio handiagoa) Madril eta Mediterraneoko eta Ebroko ardatzak sendotu ditu, baina deskontzentrazio demografiko eta ekonomikoa ere izan da, hirien alde beti. Biztanleriaren galtze larria

2022

gertatzen ari da Gaztela eta Leon, Gaztela-Mantxa, Aragoi, Extremadura eta Asturiasen, eta Galiziako eta Kantabriako barnealdeetan.

**A2.-** Paisaia-irudi baten iruzkina. (4 puntu)

| |
|---|
| -Gizaki-natura interakzioak paisaien gainean sortzen dituen arazoak identifikatzen ditu.<br>-Paisaia gizatiartuak eta naturalak bereizten ditu.<br>-Espainiako paisaia naturalak bereizten ditu iturri grafikoetatik abiatuta, eta paisaia naturalen barietate bakoitzaren irudi adierazgarriei buruzko iruzkinak egiten ditu. |

*Ikaskuntza ebaluagarriaren estandarrak, PCM/58/2022*

| |
|---|
| *3.– Natura-ingurunearen ezaugarri orokorrak ezagutzea, Espainiako eta Euskal Herriko natura-multzoen aniztasuna ezagutzea eta mapan kokatzea, haien elementuak eta dinamika identifikatzea, haien arteko interakzioak azaltzea eta giza ekintzak haietan duen eginkizuna baloratzea.* |

*Ebaluazio-irizpideak, 127/2016 Dekretua*

2022

**Kontsultatu, epigrafe honetarako, dokumentu hau:**
http://hdl.handle.net/10810/37549
**Diapositibak: 51-52-53**

Alderdi hauek tratatzea baloratuko da:

1.- **(0,25)** Zer elementuk osatzen dute paisaia? Baten bat nagusitzen da? Ikusten den paisaia zer da, naturala edo antropikoa?
*Paisaia eratzen duten osagai nagusiak bereizten ditu:* **abiotiko** naturala harkaitzetan, **biotiko** naturala basoguneetan, eta antropikoa belardietan eta baso-landaketetan, **antropikoa** eraikitzen ari den azpiegituran —baserria eta bidea—.

2.- **(0,5)** Zer erliebe mota da? EAEko zein unitatetan kokatuko zenuke? Modelatze-formak ikusten dituzu?

- *Erliebearen azterketa egokia egiten du: topografia, litologia, egitura, modelatze-formak, kokapena:* irudian, haran estu baten hegal aldapatsuak ikusten dira, eta, hondoan, kareharrizko mendi bat. **Erdiko Ibaibideetako Mendi eta Haranak** erliebe-unitateari dagokio. Malda handiko mendi-hegal horiek osatzen dituzten arrokak buztintsuak dira; beraz, oso apurkorrak urarekin kontaktuan, eta mendi-hegalak higitzea eragin dezakete.
-

3.- **(0,5)** Zer landaredi mota bereizten da? Naturala edo antropikoa da? Zein dira haren ezaugarriak eta eragileak?

- *Egoki bereizten du landaredi mota edo lurzoruaren erabilera motak. Eragile nagusiak aipatzen ditu: kokapenaren araberako baldintza klimatikoak:* irudian, belardiak eta baso-landarediko orbanak bereiz daitezke, landaketei eta basoei dagozkienak, hostoerorkorrenak lehen planoan, hostoiraunkorrenak kareharrizko mendiaren magalean. Baldintza klimatiko atlantikoko eremu horri hostozabalen baso mistoa dagokio landaredi potentzial gisa, **haritza** (*Quercus*

*robur*) nagusi. Baina lurrak lehorragoak eta harritsuagoak direnean (kareharrizko hegaletan), **artadia** (*Quercus ilex*) garatzen da.

4.- **(0,25)** Ur-gorputzik ikusten da? Zein?

- *Hainbat ur-gorputz bereizten ditu:* Ez da ur-gorputzik ikusten.

5.- **(0,5)** Ikusten diren osagaiak eta ezaugarriak kontuan izanda, zer funtzio agertzen da edo dira paisaia horretan?

- *Paisaia horretan agertzen diren funtzioak egoki bereizten ditu:* Paisaia hori **abeltzaintzako eta basogintzako** landa-inguruneari dagokio, eta komunikazio-azpiegitura batek zeharkatzen du (irudian, oraindik obra-fasean dago) —AHTa—; beraz, **zerbitzu**-funtzio bat du.

6.- **(2)** Zure ustez paisaia horretan natura-gizarte harremanean potentzialitate edo arazoren bat hautematen da?

- *Paisaia horretan adierazten den lurralde-potentzialitatea edo arazoa egoki ikusten eta azaltzen du:* Euskal Herriko isurialde atlantikoko lurraldearen zati handi bat ezaugarritzen duen **ingurune fisikoaren baldintzatzaile** nagusietako bat jasotzen du irudiak: haran ugariz eta malda handiko hegalak dituzten mendiz osatutako erliebea. Edozein lurralde-proiektu —eta haien artean luzera handiko azpiegitura linealak— baldintzatzen ditu erliebea. Azpiegitura horiek eraikitzeko, ingeniaritza-lan handiak egin behar dira bidezubietan, tuneletan…, eta mendi-hegalei eusteko (eta egindako lur-erauzketei eusteko). Proiektu horiek diseinatu aurreko azterketek kontuan izan behar dute **mehatxu** gisa haien ezegonkortasuna, batez ere prezipitazio handien edo etengabeen garaian —eta hori gure lurraldearen beste ezaugarri klimatiko bat da—.

2022

## B MULTZOA: Gaia garatzea (4 puntu)

**B1.-** Euskal Autonomia Erkidegoko industria-sektore nagusiak. (4 puntu)

| |
|---|
| -Espainiako industriaren arazoei eta konfigurazioari buruzko informazioa aztertzen du.<br>-Industriaren sorrera eta herrialdeko energia- eta lehengai-iturrien kokapena erlazionatzen ditu.<br>-Ardatz kronologiko bat ezartzen du Espainiako industrializazioaren bilakaera historikoa azaltzeko.<br>-Espainiako industriaren ezaugarriak eta eskualdetik eskualdera dituen desberdintasunak zerrendatzen ditu.<br>-Europar Batasunaren industria-politikak eta politika horiek Espainiakoetan duten eragina deskribatzen ditu. |

*Ikaskuntza ebaluagarriaren estandarrak, PCM/58/2022*

| |
|---|
| 4.– Ea jarduera ekonomikoak eta haiek eragiten dituzten eraldaketak aztertzen dituen, ingurunearen eta giza taldeen arteko erlazioa, giza talde horien kokapen-faktoreak eta banaketa ezagutzen dituen, egungo joerak azaltzen dituen eta joera horiek beren Europako testuinguruan balioesten dituen. |

*Ebaluazio-irizpideak, 127/2016 Dekretua*

Alderdi hauek tratatzea baloratuko da:

Industria hiru sektoretan oso espezializatuta: metalurgia eta produktu metalikoen ekoizpena, erauzte-industria eta petrolioaren, energiaren eta uraren industriak; eta makineria eta ekipo mekanikoa.

Jarduera helduak, lehiakortasunaren oinarri moduan prezio txikia eta herrialde merkeagoen lehia dutenak, eta maila teknologiko eta eskari ertaineko ekipo-ondasunetan oinarritzen direnak.

Industria-politikaren bidez ekoizpena dibertsifikatu nahi da, sektore tradizionalak berrituz, lidergoan jartzeko, eta sektore berritzaileetan eta etorkizuneko sektoreetan enpresa berrien sorrera bultzatuz.

**B2.-** Nekazaritzarako, abeltzaintzarako eta basogintzarako espazioak Espainia mediterraneoan. (4 puntu)

-Nekazaritza, abeltzaintza eta basogintzako jarduerak identifikatzen ditu.
-Mapa batean kokatzen ditu nekazaritza-gune nagusien banaketa.
-Espainiako nekazaritza-paisaien ezaugarriak erakusten dituzten irudiei buruzko iruzkinak egiten ditu.
-Historian zehar jabetzak izan duen egitura definitzen du, modu laburrean.
-Espainiako nekazaritza-paisaien ezaugarriak aztertzen ditu.
- Espainiak NPBan duen egoera azaltzen duten kazetaritza-testuei buruzko iruzkinak ditu.
-Espainiako arrantza-jardueraren ezaugarriak eta bereizgarriak ezartzen ditu.

*Ikaskuntza ebaluagarriaren estandarrak, PCM/58/2022*

4.– Ea jarduera ekonomikoak eta haiek eragiten dituzten eraldaketak aztertzen dituen, ingurunearen eta giza taldeen arteko erlazioa, giza talde horien kokapen-faktoreak eta banaketa ezagutzen dituen, egungo joerak azaltzen dituen eta joera horiek beren Europako testuinguruan balioesten dituen.

*Ebaluazio-irizpideak, 127/2016 Dekretua*

2022

Kontuan hartuko da:

- Kokapena: Mediterraneoko kostaldea eta kostalde aurrekoa, Guadalquivir harana eta Balear uharteak.
- Ingurune naturala (klima, erliebea): klima mediterraneoa, era askotako erliebea (leuna Guadalquivirreko landa zabaletan eta kostaldeko lautadetan eta malkartsuagoa kostalde aurreko aldeetan)
- Nekazaritza-egiturak: era askotako populatzeak (kostaldeko ortu-lurraldeetan sakabanatua, eta beste sektoreetan, berriz, kontzentratzeko joera) eta askotariko ustiategi-tamainak (sail ureztatuetan, ustiategi txikiak dira nagusi; lehorreko lursailetan, berriz, bada aldea Andaluziako mendebaldeko ustiategi handien, Kataluniako ustiategi ertainen eta Valentzia eta Murtziako ustiategi txikien artean)

- Landa-lurren erabilera: kontraste handia dago lehorreko laborantzaren (kostalde aurreko aldeetan eta Guadalquivirreko landa zabaletan, zerealak, mahastia, olibondoak, almendrondoak) eta labore ureztatuen artean (atari zabalean eta plastikopean, baratze- eta fruitu-haztegiak).

## C MULTZOA: Definizioak (2 puntu)

Proposatutako 8 kontzeptuetatik **4 definitu** (bakoitzak gehienez 0,5 puntu balio du).

Definizioek gehienez 5 lerrokoak izan behar dute; beraz, sintesi-gaitasuna kontuan hartuko da.
Kontzeptuen definizioa hemen adierazten denaz bestelakoa izan daiteke, eta, hala ere, balekoa izan. Orientabide gisa balio dezakete hemen ematen diren definizioek:

**Europar Batasuna (EB):** Europako Ekonomia Erkidegoaren oinordekoa den komunitate ekonomiko eta politikoa, 1993an ezarria. Europako 27 estatuz osatuta dago. Haren organo erabakitzaile nagusiak Parlamentua, EBko Ministro-kontseilua eta Batzordea dira.

**Megalopolia:** eskualdez gaindiko hedadura duen hiri-aglomerazioa.

**Hiri-Antolamenduko Plan Orokorra:** udalerriaren hirigintza-antolamendu integralerako oinarrizko tresna. Hiri-garapena zenbait urtetarako proiektatzen du: inguru bakoitzeko lurzoruaren erabilerak, lurzoruaren sailkapena (hirikoa, urbanizagarria eta urbanizaezina), eraikuntza-dentsitatea, bide-sarea, ekipamenduak eta ingurumena babesteko neurriak.

**Ekintza-zentroa:** Antizikloia edo depresioa, ia beti egonkorra eta handia, eskualde zabal baten gaineko perturbazio atmosferikoen desplazamendua zuzentzen duena.

**Tertziarizazioa:** jarduera ekonomikoaren barnean zerbitzu-sektore edo hirugarren sektorearen hazkunde nabarmena dakarren eraldaketa ekonomiko eta soziala; hirugarren sektorea, hala, lanpostu gehien sortzen dituen eta BPGari (barne-produktu gordinari) gehien ematen dion sektorea izatera pasatzen da.

**Arro hidrografikoa:** ibai batek eta haren ibaiadarrek drainaturiko lurraldea.

**Akuikultura:** jarduera ekonomiko gisa uretako —itsasoko edo ur gezetako (akuikultura kontinentala)— landare-eta animalia-espeziak haztea.

**Baliabide naturala:** giza beharrizanak asetzeko hartu edo erabiltzen den ingurune naturalaren partea edo osagaia.

2022

# GEOGRAFÍA

La valoración de las pruebas del examen, práctica, teoría y definición de conceptos, tiene que ajustarse al enunciado de las preguntas.

**Criterios generales**
Se valorará especialmente:

- claridad de conceptos
- madurez y corrección de la expresión escrita
- capacidad de relación
- capacidad de jerarquizar elementos y factores
- estructuración ordenada de las respuestas
- la relación real de los comentarios con los mapas o figuras y la concreción en las localizaciones cartográficas
- nivel de conocimientos

**Criterios específicos**

**BLOQUE A: Ejercicio práctico (4 puntos)**

**A1.-** Comentario del mapa de densidad de población de España. (4 puntos)

2022

-Comenta la población de las regiones que crecen y las que disminuyen su población.
-Explica las relaciones entre Comunidades Autónomas en relación con las migraciones interiores.

*Estándares de aprendizaje evaluable, PCM/58/2022*

6.– Comprender la población como un factor esencial cuya distribución, dinámica y estructura intervienen de forma relevante en los procesos que conforman el espacio. Explicar las causas y las consecuencias de las desigualdades económicas, la desigual distribución de la población, los movimientos migratorios o el envejecimiento de la población.

*Criterios de Evaluación, Decreto 127/2016*

La distribución espacial de la población se analiza mediante la densidad de población, que relaciona la población de una zona con su superficie en $km^2$. Valor moderado e inferior a la media europea pero que esconde fuertes desequilibrios espaciales entre áreas de alta densidad (Madrid, periferia peninsular, Canarias) y áreas de baja densidad en el interior peninsular y de montaña (< de 10 hab/$km^2$).

Tras la crisis que redujo la atracción de las áreas industrializadas, los factores actuales de desarrollo (primacía de los servicios, difusión espacial de la industria, agricultura tecnificada y desarrollo endógeno junto a una mayor inmigración extranjera) refuerzan la consolidación demográfica de Madrid y de los ejes

mediterráneo y del Ebro, pero también una desconcentración demográfica y económica pero siempre de carácter urbano. Despoblación rural grave en varias comunidades autónomas como Castilla y León, Castilla-La Mancha, Aragón, Extremadura, Asturias o interior de Galicia y Cantabria.

**A2.-** Comentario de una imagen de paisaje. (4 puntos)

| |
|---|
| -Identifica los problemas suscitados por la interacción hombre-naturaleza sobre los paisajes.<br>-Diferencia los paisajes humanizados de los naturales.<br>-Diferencia los distintos paisajes naturales españoles a partir de las fuentes gráficas y comenta imágenes representativas de cada una de las variedades de paisajes naturales. |

*Estándares de aprendizaje evaluable, PCM/58/2022*

| |
|---|
| *3.– Conocer los rasgos generales del medio natural, reconocer la diversidad de conjuntos naturales españoles y de País Vasco, localizándolos en el mapa, identificando sus elementos y su dinámica, explicando sus interacciones y valorando el papel de la acción humana en ellos.* |

*Criterios de Evaluación, Decreto 127/2016*

2022

**Consultar para este epígrafe el documento:** http://hdl.handle.net/10810/37547 diapositivas 51-52-53

Se valorará el tratamiento de los siguientes aspectos atendiendo a la puntuación de cada epígrafe:

1. **(0,25)** ¿Cuáles son los elementos que configuran el paisaje? ¿Alguno es dominante? ¿El paisaje que se observa es natural o antrópico?
*Distingue los principales elementos que configuran el paisaje*: Elementos componentes: **abiótico** natural en roquedo, **biótico** natural en manchas de bosque y antrópico en prados y plantaciones forestales, **antrópico** en la infraestructura que se está construyendo, el caserío y el camino de acceso

2. **(0,5)** ¿De qué tipo de relieve se trata? ¿Podrías localizarlo en las unidades de relieve de la CAPV? ¿Observas formas de modelado?

- *Interpreta el relieve que se observa adecuadamente: topografía, litología, estructura y formas de modelado, lo localiza:* En la imagen se observan las laderas inclinadas de un valle estrecho y al fondo una montaña caliza. Se corresponde con la unidad de relieve Montes y Valles de los Cursos Medios. Las rocas que componen estas laderas en fuerte pendiente son arcillosas y por tanto muy deleznables con el contacto del agua y muy susceptibles a la generación de movimientos en la ladera.

3. **(0,5)** ¿Qué tipo de vegetación se observa? ¿Es natural o se trata de un uso antrópico? ¿Cuáles son sus características y factores?

- *Distingue de forma óptima la vegetación y los usos vegetales del suelo. Indica los principales factores: condicionantes climáticos en función de la localización:* En la imagen se pueden distinguir prados y manchas de vegetación forestal que corresponden a plantaciones y bosques de hoja caduca en primer término y perenne en la falda de la montaña caliza. A este ámbito de condición climática atlántica, le corresponde como vegetación potencial el bosque mixto de frondosas y en el que domina el roble. Pero cuando los suelos son más secos y pedregosos (en las laderas calizas) el bosque que se desarrolla es el del encinar.

4. **(0,25)** ¿Se observan cuerpos de agua? ¿Cuáles?
   - *Distingue de forma óptima los cuerpos de agua:* No se observan cuerpos de agua.

5. **(0,5)** Atendiendo a los elementos que se observan ¿qué tipo/s de paisaje según función configura/n esa imagen?
   - *Expresa de forma adecuada las diferentes funciones que se aprecian en el paisaje:* Este paisaje corresponde a un medio rural, de función ganadera y forestal, atravesado por una infraestructura de comunicación (en la imagen todavía en fase de obra) -TAV- y por tanto con una función de servicio.

6. **(2)** ¿Consideras que en ese paisaje se produce o puede producir algún tipo de potencialidad o problemática naturaleza-sociedad?
   - *Observa e interpreta de forma adecuada la potencialidad o el problema territorial que trasciende de la imagen:* La imagen recoge uno de los principales **condicionantes del medio físico** que caracteriza a buena parte del territorio de la vertiente atlántica del País Vasco: un relieve constituido por numerosos valles y montes con laderas de fuerte pendiente. Cualquier proyecto territorial y entre ellos las infraestructuras lineales de gran longitud está condicionado por ello. Para su construcción se requieren realizar grandes obras de ingeniería en viaductos, túneles, etc. y para contener las laderas (y los desmontes realizados) que los bordean y sustentan. Los estudios previos al diseño de estos proyectos deben tener en cuenta la **amenaza** que supone la inestabilidad de las mismas en momentos sobre todo de fuertes o continuas precipitaciones, otra característica climática de nuestro territorio

2022

## BLOQUE B: Temas de contenido teórico (4 puntos)

**B1.-** Principales sectores industriales en la C. A. del País Vasco. (4 puntos)

| |
|---|
| -Analiza información sobre los problemas y configuración de la industria española. |
| -Relaciona el nacimiento de la industria y la localización de fuentes de energía y materias primas en el país. |
| -Establece un eje cronológico para explicar la evolución histórica de la industrialización española. |
| -Enumera las características de la industria española y sus diferencias regionales. |
| -Analiza gráficas y estadísticas que expliquen las producciones industriales. |

-Señala en un mapa los asentamientos industriales más importantes, distinguiendo entre los distintos sectores industriales.
-Describe las políticas industriales de la Unión Europea y su influencia en las españolas.

*Estándares de aprendizaje evaluable, PCM/58/2022*

Se valorará el tratamiento de los siguientes aspectos:

- Tres sectores industriales principales: metalurgia y fabricación de productos metalúrgicos; industrias extractivas y del petróleo, energía y agua; y maquinaria y equipo mecánico.
- Actividades maduras que basan su competitividad en el bajo precio y sufren la competencia de países más baratos, y en bienes de equipo de nivel tecnológico y demanda media.
- Política industrial que tiene por objetivo diversificar la producción, innovando en los sectores tradicionales para colocarlos en una posición de liderazgo, y apoyando la creación de nuevas empresas en sectores innovadores.

**B2.-** Los espacios agrícola-ganaderos y forestales de la España mediterránea. (4 puntos)

-Identifica las actividades agropecuarias y forestales.
-Sitúa en un mapa la distribución de los principales aprovechamientos agrarios.
-Comenta imágenes que ponen de manifiesto las características de los diversos paisajes agrarios españoles.
-Define históricamente, de forma sumaria, la estructura de la propiedad.
-Analiza las características de los diversos paisajes agrarios españoles.
-Comenta textos periodísticos que expliquen la situación española en la PAC.
-Establece las características y peculiaridades de la actividad pesquera española.

*Estándares de aprendizaje evaluable, PCM/58/2022*

Se valorará el tratamiento de los siguientes aspectos:

- Localización: litoral y prelitoral mediterráneo, valle del Guadalquivir y Baleares
- Medio físico (clima, relieve): clima mediterráneo de influencia mediterránea; relieve variado (suave en las campiñas del Guadalquivir y en llanos costeros y más accidentado en áreas prelitorales).
- Estructuras agrarias: variedad de poblamiento (disperso en huertas litorales; tendencia a la concentración en el resto de los sectores) y de tamaño de las explotaciones (predominio de pequeña explotación minifundista en zonas de regadío; en el secano, diferencias entre la gran explotación de Andalucía occidental, la de tamaño mediano de Cataluña y la pequeña de Murcia y C. Valenciana)

2022

- Usos del espacio rural: contraste entre los cultivos de secano (cereales, vid, olivo, almendros, presentes en las campiñas de Guadalquivir y áreas prelitorales) y los cultivos de regadío (al aire libre y bajo plástico; cultivos hortícolas y frutícolas)

## BLOQUE C: Definiciones (2 puntos)

**Define 4 de los 8 conceptos propuestos** (valorado hasta 0,5 puntos cada uno de ellos).

Se tendrá en cuenta la capacidad de síntesis ya que las definiciones no deben sobrepasar las 5 líneas.
Las definiciones de estos conceptos pueden diferir de las que aquí se expresan y ser igualmente válidas. A modo de orientación no excluyente sirvan de guía las siguientes definiciones:

**Unión Europea**: comunidad económica y política establecida en 1993 y heredera de la Comunidad Económica Europea. Está integrada por 27 estados europeos. Sus principales órganos de decisión son el Parlamento, el Consejo de Ministros de la UE y la Comisión.

**Megalópolis**: aglomeración urbana de extensión suprarregional.

**Plan General de Ordenación Urbana:** instrumento básico para la ordenación urbanística integral de un municipio. Proyecta el desarrollo urbano para cierto número de años: los usos del suelo de cada zona, la clasificación del suelo (urbano, urbanizable y no urbanizable), la densidad edificatoria, la red viaria, los equipamientos y las medidas de protección ambiental.

**Centro de acción**: anticiclón o depresión, casi siempre estacionario y de grandes dimensiones, que rigen el desplazamiento de las perturbaciones atmosféricas sobre una región amplia.

**Terciarización**: transformación económica y social que conlleva un crecimiento del sector terciario o de servicios dentro de la actividad económica convirtiéndose en el que más empleo proporciona y más aporta al PIB.

**Cuenca hidrográfica:** porción de territorio drenado por un río y sus afluentes.

**Acuicultura:** actividad económica de cría de especies vegetales y animales acuáticos, marinos o de agua dulce (acuicultura continental).

**Recurso natural:** elemento o parte de la naturaleza que proviene o se obtiene para satisfacer las necesidades humanas.

2022